

Hazkunderako finkatu diren **helburu estrategikoak betetzen** ari dira

## **Kutxabankek 120 milioi euroko irabaziak lortu ditu lehen hiruhilekoan**

- Oinarrizko-sarrerak % 32 hazi dira, 40,4 milioiko ekarpena izan duen aseguru-jardueraren eta balantzetik kanpoko produktuen ondorioz komisioen igoera nabarmenarekin
- Inbertsio-fondoetan sarrera garbi gehien izan duen hirugarren Taldea izan da, baita errentagarritasun onena duten hiru kudeatzaile handietako bat ere
- Enpresen eta erakundeen bankak nabarmen hazi dira, eta horrek Taldeko Handizkako Bankaren kreditu-inbertsioa % 5,5 bultzatu du
- Finantzaketa jasangarria % 57 igo da, hipoteka berdeak eta hainbat eragiketa korporatibo eta instituzional buru direla
- Kontsumoko maileguek hiruhilekoan errekorra ezarri dute % 12 hazi ostean, neurri handi batean eragiketa digital berrien ondorioz
- Produktu nagusiak baliabide digitalen bitartez eskuratzeko aukerak online salmenten igoera ekarri du, salmenta guztien % 46 izanik
- Berankortasun tasak % 1,39an egonkor jarraitzen du, alor osoko onena izanik

**2024ko apirilaren 25ean.** Kutxabank Taldeak 2024ko lehen hiruhilekoan **120 milioi** euroko irabazi garbia izan du, iazko epe berean baino % **8,5** handiagoa.

Kutxabanken emaitzak **merkataritza-jardueraren eta banka-negozio tipikoaren** bilakaeran oinarritu dira, % **32** hazi baita, batez ere **interesen marjinak** eta aseguruaren eta zerbitzuen **komisioen igoerak bultzatuta**, balantzetik kanpoko produktuen bitartez, hau da, inbertsio-fondoan, zorro delegatuen eta aurreikuspen-produktuen bitartez.

Hazkunde hori Kutxabankek **milioi bat norbanako baino gehiagori komisioak** kendu dizkien hiruhileko berean gertatu da. Doako profila gutxieneko lotura-baldintzetara egokitzeak **bezero berrien alta-kopurua % 12,6** igoarazi du.

2025eko martxorako kontratu finkoa duten 275 pertsona integratzeko helburuari jarraiki, **73 lagun** kontratatu ditu urteko lehen hiru hilabeteetan.

Emaitza hauek erakundeak iaz ezarritako hazkunde estrategikorako erronkak lortzeko neurri desberdinak abiarazi ondoren etorri dira.

## Harpidetza garbietan eta errentagarritasunean hirugarren

Kutxabankek kudeatzen dituen bezeroen baliabideak % 6,9 hazi dira, balantzetik kanpoko baliabideek bultzatuta eta banka pribatuaren ekarpenari esker. Horrela, **81.332 milioi** eurora iritsi dira, **inbertsio funtsetan % 15eko** hazkundea izanda, **% 58koa eperako aurrezkian** eta **aurrezki planetan** eta **% 9koa aurreikuspen-produktuetan**.

2024ko lehen hiruhilekoan, Kutxabank inbertsio funtsetan harpidetza garbi gehien izan duen **hirugarren Taldea** izan da, **712 milioi** euroko sarrera berriekin, eta **% 7,5eko merkatu kuota** lortuta.

Gainera, **Kutxabank Gestión errentagarritasun handiena** lortu duen lehen hiru kudeatzaile handietako bat izan da.

## Handizkako eta enpresen bankak bere helburuak gainditu ditu

**Sistemen eraginkortasunean, bezeroen sailkapenean, produktuen sofistikazioan** eta enpresen eta erakundeen eremuko **intentsitate komertzialaren** eraldaketa sakonak sustatu ostean, Kutxabankek enpresei bideratutako finantzazioak hazten jarraitu du. Aktibo finkoen formalizazioa % 11 igo da, interes-tasen ondorioz kredituaren eskaria uzkuritu den testuinguruan.

Urteko lehen hiruhilekoan, **2.454 milioi** euro sinatu dira formalizazio berrietan, eta horrek **% 5,5** handitu du Handizkako Bankuaren kreditu-inbertsioa, batik bat banka korporatiboak eta enpresa handienek bultzatuta.

**Aktibo finkoen finantzaketan, atzerriko-merkataritza % 3,6** hazi da eta **% 8,4** ekoizpen-aktiboen finantzaketa, batik bat makinena.

## Finantzaketa jasangarria gora

Kutxabankek asebate dituen finantzaketa beharren zati handi bat jasangarritasun parametroen baitan kokatu da. Taldeak **929,8 milioiko** finantzaketa jasangarriekin itxi du epealdia, **% 57,4 hazita** beraz.

Igoera esanguratsuena banka korporatiboan eta instituzionalean sumatu da, guztira **714 milioi** euroko finantzaketa eman baita, neurri handi batean ESG irizpideen barruan sartutako eragiketa garrantzitsuak sinatu izanari esker.

Izaera '**berdea**' duten **hipoteka-maileguak %12** hazi dira uzkurituta dagoen merkatu-testuinguruan, eta formalizatutako **hipoteka guztien % 27** ziren martxoaren amaieran.

## Digitalizazioak kontsumo-maileguak sustatu ditu

Kontsumoko maileguak dira Kutxabanke bere negozioa hazteko egingo duen apustu estrategikoetako bat. Baliabide digital berriek aurrez eginiko kreditu-sailkapena errazten dute, beti ere kontsumo arduratsuaren baldintzen baitan, eta negozio-atal honen hazkunde nabarmena ekarri dute.

2024ko lehen hiruhilekoaren amaieran, formalizatu diren eragiketa guztien **% 55 kanal digitalen** bidez kontratatu dira. Guztira, **175 milioi** euro bideratu dira **-% 12 gehiago-**, **mailegu pertsonalak % 4** baino gehiago hazita eta **% 37 merkataritza-kreditua**.

Kutxabanke zerbitzuaren eta produktuen digitalizazioarekin eta bezeroekiko hurbiltasunarekin duen konpromiso argiaren eraginez, on-line operazioak areagotu dira aurrez-aurrekoen kaltetan.

Salmenta digitalek hazten jarraitu dute urteko lehen hiru hilabeteetan, eta iazko aldi beraren aldean gorakada nabarmena izan dute, gehienbat baliabide digitalak geroz eta erabilgarriagoak direlako. Kanal digitalen bitartez **kontratatu** diren produktu eta zerbitzuak eragiketa guztien **% 46ra** arte iritsi da, eta bezero **digitalen** batez bestekoa **%64an** kokatu da.

## Emaitzen kontua

Emaitzen kontuko marjina nagusi guztiek bilakaera ona izan dute.

Banku negozioaren oinarritzko sarrerak nabarmendu dira, **% 31,7ko** hazkundera izan baitute, **504 milioi eurotik gora**, batez ere Interesen Marjinak bultzatuta, **345 milioi** euro inguruan ezarri baita, **% 46,9** igota. Aseguruen jarduerak 40,4 milioi euroko ekarpena egin dio emaitzen kontuari.

Partaidetuen zorroaren ekarpen errepikakorrak aurreikuspenak gainditu ditu, batez ere dibidenduen eta bazkidetuen ekarpenaren bidez, 30,4 milioi eurokoa izan da. Ondorioz, **Marjina Gordina 452,4 milioi** eurokoa izan da.

Ustiapen gastuak % 8,5 hazi dira iazko martxoaren aldean, pertsonaleko gastuak hazi direlako eta digitalizazio-prozesua sustatzen jarraitu delako.

Taldeak egin ohi duen zuhurtziazko kudeaketaren ildotik, kreditu-zorroaren eta gainerako aktiboen saneamendu maila handiari eutsi zaio, arlo honetara 96,6 milioi euro bideratu ostean.

Milioi eurotan	2024ko martxoan	%Δ
Interesen Marjina	344,9	46,9
Zerbitzuen eta aseguruaren sarrerak	159,7	7,5
<b>Banka negozioaren core sarrerak</b>	<b>504,6</b>	<b>31,7</b>
Dibidenduak, baliokidetasunak eta ROF	30,4	-23,6
Beste ustiapen emaitzak	-82,7	46,5
<b>Marjina Gordina</b>	<b>452,4</b>	<b>23,4</b>
Ustiapen gastuak	-170,1	8,5
<b>Ustiapen Marjina</b>	<b>282,2</b>	<b>34,5</b>
Saneamenduak eta narriadurak	-96,6	75,0
Beste irabazi eta galerak	2,8	-27,6
<b>Zergen aurreko emaitza</b>	<b>188,5</b>	<b>18,9</b>
Zergak eta bestelakoak	-68,4	43,0
<b>Taldearen emaitza</b>	<b>120,0</b>	<b>8,5</b>

## Adierazle nagusiak

Kutxabanken berankortasun tasak egonkor jarraitzen du % **1,39an**, alorreko batz bestekoa oinarriko 223 puntutan hobetuta, otsailaren amaieran % 3,62an baitzegoen.

Errentagarritasun-adierazleek nabarmen egin dute hobera, sarrera-errepikakorrak sortzeko gaitasunari eta gastuen bilakaerari esker. Honela, ROTE % 9,4koa izan da, ROA % 0,8koa eta, ROF eta bankuen zergaren eragina kenduta, **eraginkortasun ratioa % 35,4koa** izan zatekeen.

Kutxabankek kaudimenean bere sendotasunari eusten dio, % **18,1eko CET1 fully loaded** ratioarekin, aurten oinarritzko 15 puntu hobetuta.

## Kutxabanki buruz

Kutxabank Euskadiko eta Kordobako finantza erakunde nagusia da. 700 bulego inguru ditu, jatorriko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulegoen sarea du, eta Andaluzian, Madrilan eta Katalunian presentzia nabarmena du. 5.000 profesionaletik gorako lantaldearekin, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sisteman kaudimen onena duen bankua da, eta Europako arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.